

Zer izan garen eta zer izan nahi dugun, horra transmisioa

2014 Urruñako Kabalkada
Zintzarrotsak

Sortzaileak:

Gerard Urrutia,
Joseba Aurkenerena eta
Zelin Duperou

Non: Urruñako Pilota plazan;
(Lapurdi).

Noiz: ekainaren 7 eta 15ean.

BADAGO ZER EGINA, badago zer ikasia, badago zertaz kexa... Nola adierazi, ordea? Transmisioa landu behar dugu herritarrok, harremanak sakondu, hor dago gakoa. Sustrai eta Odei urruñar bertsolarien hitzak dira horiek. Izan garena ezagutu behar dugu, izan nahi duguna zehazteko. Horratx, Urruñako Zintzarrotsak ikusgarriak helarazi dizkigun lemak.

Gaiak ez dira eskas Euskal Herrian, Urruñako lekuko: Santa Flora parkea, Conserver XXI enpresa edota Bertoli elkarte iraganean, hala AHT, nola Euskara edo Gaztetxea gaur egun. Sujetak ere franko: jauntxo zakilak zein herritar porrokatuak.

Ttote Mendigaine laboraria eta Sakelbero bankaria entzun genituen AHT karioaren karietara. Laborariak zirtzilak lagun zituen, bankariak jendarmeak. Jauntxo Parisera fite joateko presaz, herritar xumea ama lurrari lotu beharrez. Entzun genituen halaber –euskara auzitan–, Finfin amifiñ mensa eta *mademoiselle* ukatzaile harroputza. Ibai Gorri eta Larregorri herritarrek elkarri mokoka jardun zuten ondoren. Euskara gibelerara ermaten gaituen zozoen hizkuntza dela zioen frantximentak, gazteak irmo egin zion buru, kolonizatzaileari.

Mari Kutzu andereak istorio ilunak ekarri zituen plazara: Santa Flor bilakatutako Florenzia eta Conserver XXI. Michelle Alliot-Marie ministroaren arima zitala sumatu genuen airean. Iraganeko eskrokeria edo



MIKEL ASURMENDI

Mahai erdian jujea, uxera eta abokatua alboan dituela. Musikariak eta kantariak hondoan. Hedexuriak eta zirtzilak izan ziren animatzaile bizkorrenak.

iruzurren usainak ez dira plazatik uxatu oraindik ere. Herritar anonimoa ere mintzatu zen, bere izena azaltzeko beldur. Bertoli herriko elkartearen izan ziren auziak ez dira kitatuak. Metrailetak ez ezik, misilik ere gordetzen omen zituzten bertan. Uxerak –estatuaren prokuradoreak edo fiskalak– ez ditu aise ixten iraganeko dosierak. Egungo gazteriarri mesfidantzaz so egiten diote jauntxoek zein agintariak. Espetxeak hustea eta Gaztetxea eraikitzea eskatu zituen Iluna gazteak.

Hiru gertaldi jokatu ziren, hainbat gai edo afera epaitu, eta hainbat aktore aritu. Batzuk hobeto bestetzuk baino euren rolean. Transmisioa landu beharrek ageri. Ikusleen artean zegoen Antton Luku antzerkigilearen eleok burura heldu zitzaizkidan: “Ene kezka transmisioa da, aktorea sortzaile bilakatzea”.

“Ezina ekinez egina” lemak uxatu zituen etsipen lipartxo horiek. Jujea, uxera eta abokatua deliberoa hartzerare erretiratu ziren plazatik. Zirtzilen

eta hedexurien –jendarmeen– arteko liskarrek bizkortu zituzten ikusleen arimak. Musikariaren kantuek berriz, iragana eta geroa uztartu zituzten oraina goxatuz. Dantzariak zintzarriak inarrosi zituzten kabalkadaren erritmora. Bertsolariak gaiak eta hitzak lerroan eman zituzten berriz ere: “Esperantza” eta “jakintza” erri-matu zituzten finitu aldera. Erabakitzea gure esku dagoela adierazi zuten. Eskubideak ez direla aldarrikapen soilak, eskubideak egunero ekinez gauzatzen direla ezinbestez.

Jujearen deliberoak ezagutu genituen azkenik: herri aldarrikapenen aldekoak, zentzuzkoak. Herritarrok eskubideok geure egiten ikasi behar dugu, ordea. Neroni azken epaia muturrekoa iruditu zitzaidan: jujeak uxera kalitza agindu zuen. Justizia ez da jujeen esku soilik, ez jakintzen ez mentsen esku ere. ■

**Mikel
Asurmendi**

